


Idazkari/Alkatetza

Ono el presento escrito el Negociado de
.....

ehbitdu

2018 MAR. 07



MERKATARITZA-GUNE HANDIAK ETA LURRALDE-PLAN SEKTORIALARI BURUZKO MOZIOA

Gure lurraldearen antolamenduan berebiziko garrantzia dute merkataritza-ekipamenduek. Sektore estrategikoa da, ekonomiari bete-betean eragiten diona, eta gure kontsumo- eta bizi-ohiturak errotik baldintzatzen dituena.

Azken aldian maiz iristen zaizkigu merkataritza-gune handiei buruzko albisteak. Gune berrien proiektuak nonahi sortu dira. Donostia inguruan, ekialdetik mendebaldera, ez dira gutxi proposatu diren egitasmoak: Zaldunborda, Illunbe, Garbera, Belartza, eta beste hainbat. Gutxi gorabeherako estimazioa eginda, esan daiteke horiek gauzatuz gero beste 155000 m² gehiago okupatuko liratekeela merkataritza-gune handietarako. Donostialdea, de facto, korridore komertzial handi bat bihurtuko litzateke.

Paradoxikoki, handitzeko joera hori ez dator bat mundu zabalean, eta guregandik gertu ere, nabarmentzen den ereduaren krisiarekin. Gaur egun, merkataritza-guneak ixten ari dira. Joera orokorra da, bestelako eredu batzuek (bereziki online merkataritzak) hartu duten indarrarengatik.

Egoera honetan, proiektu berri ugarien presakako tramitazioek desestabilizazioa ekarri dute. Inoiz baino beharrezkoagoa da sektorea erregulatzea, udalez gaindiko planifikazioa, eta neurritz kanpoko handitze-eskaera horiei muga jartzea. Inoiz baino beharrezkoagoa da merkataritza-, kontsumo- eta bizi-ohiturak zaintzea, eta gure herrietako izaera, erro sakonak dituena, babestea.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztua du "Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa Eta Merkataritza Ekipamenduak Sortzeko Lurralde Plan Sektorialaren Berrikuspen Partzialaren Aurrerakina, Merkataritza-Gune Handien Antolamenduari Dagokionez" izeneko dokumentua. Dokumentu horrek aukera eman behar luke merkataritza-guneen ugaritzea eta handitzea arautzeko eta doitzeko, udalerriz gaindiko ikuspegi batetik.

Horrenbestez, honako puntu hauek onartzea eskatzen diogu Lasarte-Oriako Udalbatzari:

1- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztu duen merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko aurrerakinaren azterketa eta berrikuspena egingo du Lasarte-Oriako Udalak, eta dokumentu horri ekarpenak aurkeztuko dizkio, sektorearen gaidimentsionatzea geldiarazteko eta merkataritza-eskaintza ez desorekatzeko.

2- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatzen diogu merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko lurralde plan sektoriala behin-betiko onartu arte ez ditzala baimendu tramitazio-bidean dauden eskaerak. Izan ere, sektorea erregulatzeko prozedura martxan dagoen bitartean, guztiz kaltegarria da ekimen berriei bide ematea.

3- Lasarte-Oriako Udalak laster landuko duen Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berri horretan, merkataritza-guneei buruzko lanketa aipatutako irizpideekin modu koherentean garatuko du.

4- Erabaki honen berri helaraziko zaio Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Lasarte-Orian, 2018ko martxoak 7
EHBildu udal-taldea

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.